

ELKARBIZITZA ARAUDIA



Batxilergoa

2020ko urtarrilaren 29tik aurrera indarrean dagoen araudia. (2024ko Irailean eguneratuta).

AURKIBIDEA

0 SARRERA.....	4
1. IKASLEEN ESKUBIDEAK.....	5
1.1. HEZIKETA INTEGRAL BATEN ESKUBIDEA.....	5
1.2. ESKOLA OREKATZAILE BATEN ESKUBIDEA.....	6
1.3. PARTAIDETZA ESKUBIDEA.....	6
1.4. ASANBLADEN ARAUDIA.....	7
2. IKASLEEN BETEBEHARRAK.....	9
2.1. ERRESPETATU BEHARRA DAGO GAINERAKOEN ESKUBIDEJARDUNA.....	9
2.2. IKASTEKO BETEHARRA.....	9
3. IKASKETA ARAUDIA.....	10
3.1. IRAKASGAIK.....	10
3.2. EBALUAZIOA.....	10
3.3. KONTROLAK ETA PROBAK.....	11
3.4. NOTAK.....	12
3.5. VAZTERKETEN ETA BESTELAKO LANEN BERRIKUSKETA.....	12
3.6. IKASTURTEA ERREPIKATZEA.....	14
4. ELKARBIZITZA ARAUTEGIA.....	15
4.1. DESEGOKIAK ETA AURKAKOAK DIREN NAHIZ BIZIKIDETZAN KALTE LARRIAK ERAGITEN DITUZTEN JOKABIDEAK ETA HORIEN ZUZENKETA.....	15
4.2. PUNTUALTASUNA ESKOLETARA ETA IKASTETXEAREN HEZIKETA EKITALDIETARA ETORTZERAKOAN.....	15
4.3. ESKOLARA ETORTZEA.....	16
4.4. IRAKASLEEI ETA IKASTETXEKO LANGILEEI ERRESPETUA.....	16

4.5.	IKASKIDEEI ERRESPETUA	17
4.6.	IKASTETXEKO EDO IKASKIDEEN MATERIALARI ERRESPETUA	18
4.7.	JABETZARI ERRESPETUA.....	18
4.8.	IKASTETXEAREN IZAERAREKIN LOTURA DUTEN IDEIA ETA EKINTZEI ERRESPETUA	18
4.9.	LANGIROA	19
4.10.	OSASUNAREN ZAIN'TZA.....	19
4.11.	GELATIK EGOZTEA	20
5.	HEZIKETA NEURRI ZUZENTZAILEAK.....	20
6.	JANTOKIKO ERABILERA.....	23
7.	ESKOLAZ KANPOKO EKINTZETAKO ELKARBIZITZA ARAUAK.....	27
8.	FUNTZIONAMENDU OROKORRERAKO ERANSKINAK.....	27
8.1.	ORDENAGAILUAK ERABILTZEKO JARRAIPIDEAK	27
8.2.	ORDENGAILUAK ERABILTZEKO UNEAK ETA ESPAZIOAK.....	28
8.3.	SAKELEKOAK ETA BESTELAKO GAILUAK ERABILTZEKO ARAUAK.....	28
8.4.	TAKILAK ERABILTZEKO ARAUAK.....	29

0 SARRERA

Araudi hau, “Euskal Autonomi Erkidegoko ikastetxe ez unibertsitarioetako ikasleen eskubide eta betebeharrei” buruzko, abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuaren markoaren barruan (EHAA 240. zenb. – 2008ko abenduaren 16an) ulertu eta aplikatu behar da, eta gure Ikastetxeko Heziketa Proiektuan jasota dago, **Jesusen Lagundiaren Ikastetxeetako Misioaren eta Ikuspenaren** espirituarekin.

MISIOA

- ✓ **Heziketa Zentro** kontzertatua gara, denei irekitakoa, **Loiolako Ignaziok** zuen, Jainkoaren, munduaren eta gizakiaren esperientzian inspiratuta, eta Jainkoaren Maitasunaren eta pertsonen arteko Maitasunaren **Berri Onaren aldarrikapenarekin** konprometituak.
- ✓ **Gure ikasleak, gure lanaren erdiguneak**, pertsona orekatuak izatea da gure xedea: beren ahalmenen arabera intelektualki jantziak, haztera irekiak, besteentzako zerbitzuan, eta gizarteak aurkezten dizkien erronkei aurre egiteko gai izango direnak.
- ✓ Heziketa lan hau familiekin eta gizartearekin **partekatzen** dugu, Euskal Herriaren eta bere kulturaren eta hizkuntzaren testuinguruan.
- ✓ Gure **kudeaketa**, erantzukidetasunean eta etengabeko hobekuntzan oinarritzen da, **etengabeko prestakuntzan diharduten langile kualifikatuekin**, eta behar bezalako baliabideak ditugularik.

IKUSPENA

- ✓ **Bermedun** ikastetxea izatea, eta bere esperientzia historikotik eta Ignazioren herentziatik, gure herriko errealitate kultural, sozial eta politikoan **konprometituta** dagoena.
- ✓ **Irekia** eta topalekua, eta **elkarrizketa eraikitzailea**.
- ✓ **Konfiantza** sortzen duena bere:
 1. **Bikaintasun akademikoagatik**:
 - Berritzailea, pedagogia aldetik
 - Zorrotza eta eroso, bakoitzaren ahalmenen garapenean - Ikasleria eleanitzaren sustatzailea
 2. **Kudeaketa eraginkorragatik**, oinarritzen baita:
 - erantzukidetasunean
 - prozesu eta baliabide desberdinen etengabeko hobekuntzan - finantza oreka bilatzean.
- ✓ Beste **boluntario eta zerbitzu esperientziak** emanez jarraitzen du pastoraltza, kultura, aisialdiko eta kirol jardueretan.

Araudi honek, beraz, **askatasuna, errespetua, tolerantzia, integrazioa, partaidetza eta kritika gaitasuna sustatu** behar ditu, besteak beste. Baina baita erantzukizuna ere, norbere ahalmenen garapenean eta besteen zerbitzura jartzeko gaitasunean.

Dokumentu honen arauak, adierazitako printzipioen zehaztaperen praktikoa eta laguntza eraginkorra izatea nahi da, proposatutako helburuen lorpenerako.

Lehen hezitzaileak **gurasoak** direla jakinik eta langintza horretan gu haien lankide garelara, **jakinean egon** behar dute, beraz, arautegia aplikatzerakoan (arautegiaren eta jokatzeko eraren berri emanez), berorren betetzeko moduetan, beren seme-alaben aldetik betebeharrak hausteak diren portaerak gertatzen direnean.

Gurasoak lankide izatea komeni da, neurri zuzentzaileak finkatuz, gure lehen irakaskuntza lana oztopatzen duten neska-mutilen oinarrizko gaitasun sozialak eta hiritarrak lortzeko bidean.

Ikasle guztiek dute, araudi honetan aitortutako balioak eta printzipioak ezagutzeko eskubidea eta betebeharra, eta baita horietan heztekoa ere.

Ikasleak beren eskubideez baliatuko dira, beren betebeharren, eta hezkuntza komunitateko gainerako kideen eskubide-aitormenaren eta errespetuaren kaltetan izan gabe.

Heziketa elkarte osoak zuzengarri izan daitezkeen jokabideen ezaupidea izatea bermatzeko, **ikasleei, eta baita guraso edo hauen legezko ordezkarietara ere, dokumentu honen edukia gogoraraziko zaie ikasturte bakoitzaren hasieran,** tutoretzaren bidez.

Araudi honen **helburu nagusia** honako hau da: **ikasleek beren eskubideak baliatzen eta beren betebeharrak betetzen ikasi behar duten bizikidetzaren esparrua arautzea,** gizartean eskubide osoko herritar gisa integra daitezzen. Alde batetik, **bizikidetzaren positiboki** bultzatzean datza, ikastetxeek beren hezkuntza-proiektuetan gaineratu behar dituzten planekin bat etorriz .

Bizikidetzaren arautuko duen marko orokorra izanik, **beste ekimen hezitzaile askoren osagarri izateko espirituarekin eginda dago,** hala nola, **bizikidetzaren positiboa sustatzeko tutoritza arlotik bultzatzen diren jarduerak** talderen funtzionamendua era adostuan eta parte hartzailean bultzatzeko, **edota ikasleek eurek Foroaren bidez hobekuntza proposamenak egiteko bideratzen dituztenak.**

1. IKASLEEN ESKUBIDEAK

1.1. HEZIKETA INTEGRAL BATEN ESKUBIDEA.

1- **Beren nortasunaren garapen osoa lortzen lagunduko dien prestakuntza eskubidea.** Adibide batzuk aipatuko ditugu eskubide honek zer esan nahi duen adierazteko:

- Prestakuntza, eskubideen eta askatasunen errespetuan, eta tolerantzian jardunez.
- Ezaupideak, ohitura intelektualak eta lan-teknikak lortzea.
- Ikasleen aldetik, beren kultur nortasuna aurkitzea, Euskal Herriko kide gisa.
- Bakerako, askatasunerako eta herrien arteko lankidetzaren eta solidaritate ideien sustapenerako prestakuntza.
- Afektibitatearen, norbere autonomiaren, auto-estimua eta besteekin harremanak izateko gaitasunaren garapena.
- Partaidetza, hezkuntzaren kalitate-hobekuntzan.

2- Ikasleek eskubidea dute beren dedikazioa, ahalegina eta errendimendua aitortuak eta objektiboki baloratuak izan daitezzen.

- Ebaluazio irizpideak eta gutxieneko helburuak ezagutzeko eskubidea.
- Irakasleei kalifikazioei buruzko argibideak eskatzeko eskubidea. Irakasleek ikastetxean gordeko dituzte probak, lanak eta ariketak, ikasturteko edozein unetan eskura egon daitezzen, eskola garai guztian zehar eta, gero, ezohiko azken deialdiko kalifikazioen erreklamazio epea igaro bitartean.

3- Errespetu eskubidea, beren kontzientzia askatasunarenganako eta beren uste ideologiko, erlijioso eta etikoenganako.

Eskubide hau era honetan bermatuko da:

- Ikasleriaren manipulazio ideologikoa edo propagandazkoa saihestuko duen irakaskuntza emanez.
- Ikasleen kritika gaitasuna sustatuz.
- Ikastetxeko hezkuntza Proiektuaren berri emanez.

4- Beren osotasun fisiko, psikiko eta morala errespetatua izateko eskubidea, eta baita beren duintasun pertsonala ere, behin ere tratu umiliagarri edo iraingarrien tresna izan ez daitekeelarik.

5- Eskolaren, bokazioaren eta lanbidearen orientazioa jasotzeko eskubidea.

1.2. ESKOLA OREKATZAILE BATEN ESKUBIDEA.

- 1- Hezkuntzako maila desberdinetara iristeko aukera berdinen eskubidea. Derrigorrezkoak ez diren mailetan ez da, norberaren behar besteko probetxua edo ikasteko gaitasuna ez den beste mugarik izango.
- 2- Diskriminatua ez izateko eskubidea, jaiotza, arraza, hizkuntza, sexua, ahalmen ekonomikoa, maila soziala, uste politiko, moral edo erlijiosoak, edo baita ezintasun fisiko edo psikikoak direla tarteko.
- 3- Ikasleek hezkuntza esparruan babes sozialerako eskubidea dute, familiako ezbeharretan edo istripu kasuetan.

1.3. PARTAIDETZA ESKUBIDEA.

- 1- Parte hartzeko eskubidea, Ikastetxeko funtzionamenduan eta bizitzan, eskola jardueran eta bere kudeaketan, indarrean dauden Hezkuntza legeen eta geure Arautegiaren arabera.
- 2- Talde edo Sail bakoitzaren partaidetza, gelako Ordezkarien eta Ordezkariordekoen bidez egiten da.

Gelako ikasle guztien artetik zuzeneko eta isilpeko botoz hautatu behar dira. Beren ordezkariak, guztien onerako erabili behar dute, eta denek babestu eta errespetatu beharko dute (Ikaskide eta irakasle). Gelako eledunak eta ordezkariak izango dira:

- Irakasleekin hitz egiteko ardura izango dute, maila orokorrean sor daitekeen edozein arazo konpontzeko.
- Tutorearekin lankidetzaren estuan arituko dira gelaren funtzionamenduaz iritziak trukatzuz.
- Gelaren ordezkariak dira ebaluazioetan (egiten diren ebaluazioetara joango dira, taldearen iritziak bertara eramanez).

- Irakasleren bat faltako balitz, tutoreari edo irakasle taldeko norbaiti, bere faltaren berri emango diote irakasle-gelan.
- 3- Ikasturte bateko Ordezkarari eta Ordezkariordeko taldeak Ikasturteko Ordezkarari Kontseilua osatzen du. Kontseilu honek Koordinatzailearekin batera, ikasturteko kontseilua osatzen du, berei dagozkien gaietarako.
- 4- Maila hauetako ikasleek (DBH II. ziklotik gora) bi ordezkarari dituzte Ikastetxeko Eskola Kontseiluan, Erakunde honi dagokion legearen eta Arautegiaren arabera.
- 5- Ordezkararien Kontseiluko kideak horiekin harremanetan egotea komeni da.
- 6- Ikasleek informatuak izateko eskubidea dute, beren Ordezkarari eta Kontseiluen aldetik, berei dagozkien gai guztiez.
- 7- Ikasleek biltzeko eskubidea dute, Euskal Eskola Publikoaren legearen 44. artikulua aipatzen dituen laguntza neurriak jaso ditzaketan elkarrekin sortuz.
- 8- Ikasleek espresio askatasunerako eskubidea dute, gertakari akademiko, kultural edo sozialen aurrean, ezadostasun espresiorako aukera barne.
- 9- Ezadostasun hori, erakundeek bezala hezkuntza Komunitateko kide orok merezi duten errespetuz adierazi behar da.
Idatzizko adierazpenaz baliatzeko, lekuaren eta unearen baimena eskatu behar zaio Koordinatzaileari.
- 10- Ikasleek ikastetxean biltzeko aukera izango dute, heziketa edo prestakuntza helburuak izan ditzaketan eskola edo eskolaz kanpoko ekintza-izaera duten jardueretarako.

Horretarako, koordinatzaileari eskatu beharko diote dagokion baimena, jarduera akademikoen garapen normalean eragina izatea eragotziz, eta erakundeek eta eragina jasan dezakeen pertsona orok merezi bezalako errespetua bermatuz. Horretarako, arduradun bat izendatu beharko dute eskatzaileen artean.

Ordezkarien eta ikasle guztien ardura izango da batzarrak eta asanbladak, errespetuz, egiaz, elkarriketa giroan eta eraginkortasunez burutzea.

1.4. ASANBLADEN ARAUDIA.

Ikasleek asanbladak burutzeko eskubidea dute, beren intereseko gaiez aritu ahal izateko, honoko arau hauek jarraituz:

- Deialdia:
 - Ikasle-asanbladak deitu ditzakete:
 - Ikasturtekoak, koordinatzaileak eta mailako Ordezkarari eta Ordezkariorde taldeak.
- Baldintzak:
 - Asanbladak, diren mailakoak direla, 24 orduko aurrerapenez deitu behar dira, gutxienez, erabili beharreko gaiak adieraziz. Ordezkarari guztiek, asanbladaren deialdiari buruz, bai ala ez erabaki aurretik, behar besteko informazioa eduki beharko dute asanblada horretan erabiliko diren gaiei buruz.
 - Eskola-orduz kanpo antolatuko dira.
 - Asanbladaren deialdia eta bertan erabiliko diren gaiak, Koordinatzaileari jakinaraziko zaizkio publiko egin baino lehen.

- Ikasle ororen betebeharra denez ikasle eta akademia bizitzan parte hartzea, beharrezkoa izango da asanbladatan parte hartzea ere, beraz, ordezkariaren ardura da, bere taldean partaidetza espiritua lortzea, ahal diren batzarririk jendetsuenak gerta daitezen.
 - Asanbladara joateko eskubidea, Saileko edo Ikasturteko ikasleei dagokie, deiaren arabera. Ez da onartuko taldekoa ez den inoren presentziarik, gonbidapen bereziz izan ezik. Normala da tutorea bertan izatea. Ikasleek bera han ez egotea nahiko balute, gelako ordezkariaren bidez jakinaraziko diote, kasu honetan alde egingo duelarik. Baina hala ere, eskubidea izaten jarraitzen du bere iritzia emateko edo eztabaidarako den gaiari buruzko informazioen bat emateko.
 - Normalean, Ordezkariak edo Ordezkariordeak moderatuko ditu Asanbladak.
 - Asanblada bat legezko izan dadin, bertan egoteko eskubidea duten ikasleen hirutik bik bertan egon beharko dute, gutxienez.
- Asanbladan proposatzen dena, denbora jakin batez eskolara huts egitea denean, gelako ikasleen %50 +1ek proposamenaren aldeko botoa eman beharko dute, onartu ahal izateko. Ikasleen botazio prozesuak eta erabakiak, funtzionamendu demokratikoan heltzen joateko lagungarri gerta daitezen, loteslea izan behar duela uste dugu botoak. Dena dela, ikastetxeak bermatu egin beharko du, gelara huts egin nahi ez dutenen eskubidea, bertan, behar bezala zainduak egon daitezen, dagozkien irakasleekin irakasgaiari dagozkion jarduerak eginez. Lanuztearekin bat egin nahi ez duten ikasleek zurian emango dute beren botoa, bi jokaerak bateragarri egin ahal izateko.

Kasu horretan:

- Ikastetxea utzi ondoren, ezingo dira berriro itzuli, deialdian zehaztutako denbora igaro arte.
- Irakasleek ez dute denbora horretan emandako azalpenak berriro eman beharrik izango. Gehiago zehaztuz:
- Irakasgai jakin batzuetan, egun horri edo egun horiei dagokien gaia emantzat hartuko da.
- Egun horretarako programatutako azterketek deialdia iragan egiten dute.

Kasuen arabera ondorio hauek izan ditzake:

- Hurrengo azterketarako gaiak pilatzea.
- Errekuperazio azterketara bakarrik aurkeztu ahal izatea.
- Azterketa horrekin ez ebaluatu egoeran gelditzea.
- Errekuperazio horrekin Ekainerako gelditzea.
- Lanak bidaltzeko epea agortzea, hori izango balitz lanak jasotzeko azken eguna.

Aurreko apartatuetan jasotako eskubideez baliatzeko ikasleak eskola-gunetik kanpora irteteko asmotan badira, beren gurasoen edo legezko ordezkarien baimen idatzia beharko dute, adin nagusira iritsita ez badaude behintzat, ikastetxetik irtetea baimentzen dieten ordua adieraziz, bere kasuan, gerta litezkeen erantzukizun zibilak zehaztu ahal izateko.

2. IKASLEEN BETEBEHARRAK

2.1. ERRESPETATU BEHARRA DAGO GAINERAKOEN ESKUBIDEJARDUNA

Ikasleek Heziketa Elkarteko gainerako kideen eskubide eta askatasun-jarduna errespetatu beharra daukate. Betebehar hau honako eginbehar hauetan zehazten da:

- 1- Errespetatu behar dira, kontzientzia askatasuna, ideologia, erlijio eta etika mailako uste sendoak, eta baita Hezkuntza Elkarteko kide guztien duintasuna, osotasuna eta intimitatea ere, gerta daitezkeen gatazka egoerak konpontzeko bide baketsuak bakarrik erabiliz, ikaskideekin beti tolerantzia eta solidaritate jarrerak mantenduz, eta heziketa elkarteko gainerako kideen eskubideen jarduna sustatuz.
- 2- Hezkuntza Elkarteko kiderik ez da diskriminatuko, jaiotza, arraza, sexu, ideologia, hizkuntza, kultura, erlijio edo beste ezein zirkunstantzia pertsonal edo sozialengatik.
- 3- Ikasleek ez dute erabiliko hezkuntza elkarteko ezein kideren aurkako irain, mehatxu edo gaizki esateko adierazpiderik.
- 4- Ikasleek ez dute eskola eremuan grabaketarako bitartekorik erabiliko, ikastetxeak antolatutako jarduerak horien erabilera eskatu ezean, kasu hauetan ere, ez dute heziketa elkarteko inoren grabaketarik egingo, bere gogoz kontrara edo bere onespentik gabe.
- 5- Ikastetxeko Heziketa Proiektua errespetatu.
- 6- Ikastetxeko Arautegia bete, Arautegi honetan gure Zikloarentzat zehazten dena.
- 7- Ikastetxeak zure esku jartzen dituen instalakuntzak, altzariak eta material didaktikoa errespetatu eta behar bezala erabili.
- 8- Heziketa elkarteko beste kideen jabegoak eta norberaren gauzak errespetatu eta, testu liburuak eta gainerako material didaktikoak, erabiliak izateko baldintza egokietan mantendu. Ikasleen erantzukizuna da, instalazioetan, altzarietan edo ikastetxeko nahiz lagunen gauzetan egindako kaltea konpontzea, nahita edo utzikeria larri izan denean. Egin behar diren konponketen gastuen kargu egingo dira, txandaka, beren gurasoak edo ordezkari legalak arduradun ordezkatzailerik izango direlarik.
- 9- Aktiboki parte hartu eta lankide izan irakaskuntzaren, eskola orientazioaren eta ikastetxeko elkarbizitzaren garapenik onena laguntzeko. Hautatuak izan direneko ordezkariak karguak betetzea eskatzen du honek, denen onaren alde eta Ikastetxearen helburuen alde lan eginez.
- 10- Ikasleek, ikastetxeak ezarri dizkien heziketa neurri zuzentzaileen barruko ekintzak bete beharra daukate.

2.2. IKASTEKO BETEHARRA

Ikastea ikasleen oinarritzko betebeharra da. Beren gaitasun pertsonalei eta ematen diren ezaupideei probetxua ateratzea eskatzen du, beren garapen pertsonalik onena eta prestakuntza intelektual eta profesional egokia lortze aldera.

Eginbehar orokor hau ondorengo betebeharretan zehazten da:

- 1 **Ikaslearen betebeharra da bere gaitasun guztiak albait gehien garatzeko ikastea eta ahalegina egitea.** Hain zuzen ere, duintasunez bizitzeko, elkarrekin bizitzeko eta etorkizunean laneratzeko behar diren gaitasunak lortzearren, behar adinako lana egingo

du eta behar den interesez; era berean, lan intelektualerako **giro egokia sortzen eta giro horri eusten lagundu behar du**, eta bere portaerarekin ez du eragozpenik sortuko gelan.

- 2 Ikasleak behartuta daude azterketak eta ariketak egiten dituztenean zintzo jokatzera, eta, beraz, beren ahalegina eta irakasleak maila bakoitzean baimendutako liburuak nahiz materialak besterik ez dituzte baliatuko.
- 3 Ikasleek **egunero joan behar dute eskolara , puntualtasunez eta justifikatu gabeko absentziarik izan gabe**, halaber eskolako egutegian erabakitako **jardueretan parte hartu eta ezarritako ordutegiak errespetatu** behar dituzte.. Ikasle batek absentismo esanguratsua daukala sumatzen denean, ikastetxeak, heziketa agintarien eta tokiko erakundeen jakinean ipiniko du gertakaria, eskola absentismoa errotik kentzeko, administrazio eta erakunde guztien lankidetzaz lortze aldera.
- 4 Honako hauek hartuko dira **justifikatu gabeko bertaratze-** eta **puntualtasun-hutsegitezat**: ikasleak edo, ikaslea adingabea bada, **haren gurasoek edo legezko ordezkariak idazki bidez arrazoitzen ez dituztenak**. Horretarako, ikastetxean ezarritako arauen arabera onargarria den justifikazioa aurkeztu beharra dago, Dekretu honetako 13.3 eta 14.3 artikuluetan ezarritakoaren aurka joan gabe.
- 5 Irakasleak gelan ematen dituen azalpenak, arretaz entzun eta proposatzen dituen jarduera didaktikoak egin.
- 6 Irakasleek **agindutako lanak egin**.
- 7 **Ikaskideen ikasteko eskubidearen jarduna errespetatu**.
- 8 Ikasgelan solidarioak izan, denen aprobetxamendurako aldeko giroa sortzerakoan, eta geletan jokabide aztoratzaileak saihestu.

3. IKASKETA ARAUDIA

3.1. IRAKASGAIK.

Irakasgai guztiek dute begirune akademiko berbera. Ikasle guztiek hartu behar dute parte prestakuntza jardueretan, nola eskolakoetan hala osagarrietan, gogoz esku hartuz, agintzen zaizkien lan pertsonalak ginez eta antolatzen diren lan-taldeetan lankide izanez.

3.2. EBALUAZIOA.

- 1- Ebaluazio saioa ezin da izan irakasgai bakoitzeko notak elkarren ondoan jartze hutsa. Era batera nahiz bestera ondorengo zatiak izango ditu:
 - Tutorearen txostena, aurreko ebaluaziotik kudeaketa edo berrikuntza garrantzitsurik izan bada.
 - Noten egiaztapena irakasle bakoitzaren aldetik.
 - Ikasle bakoitzaren noten azterketa, jarrera, bilakaera, zailtasunak, etab.
 - Kontzeptuen, prozedurazko eta jarrerazko edukien balorazioa.
 - Tutorearen bidez ikasleari edo familiari adierazi behar zaizkion neurriak, informazioak eta iradokizunak.
 - Saileko martxaren azterketa, orokorrean, bertako Ordezkarien lankidetzarekin.
 - Akordioak.

- 2- Irakasle batek, bere ikasleei jakinaraz liezazkieke bere Irakasgaiaren notak, Ebaluazioa baino lehen, baina jakinean utziz, notak ez direla behin betikoak izango Irakasleen Klaustroak bere erabakia eman bitartean eta, beraz, aldaketak izan ditzaketela une horretara bitartean.
- 3- Ebaluazio saioretara Saileko Irakasle guztiak joan behar dute. Joango dira, halaber, ikasleen ordezkari eta ordezkariordekoak gelaren ikuspegi orokorra emateko eta jasotzeko, Ekaineko ezohiko ebaluaziora izan ezik.
- 4- Tutoreak ikasle bakoitzari bere Noten Orria emango die. Gurasoek, ikasturte hasierako batzarrean jaso behar dute ebaluazio egunen informazioa, baita ekaineko ezohikoarena ere.

3.3. KONTROLAK ETA PROBAK.

- 1- Eskola-egun normaletan ezingo dira egun berean bi azterketa baino gehiago egin, neurri bateko zabalatasuna duen gaiaren kontrola ulertuz azterketatzat, ez aurreko egunean azaldu edo landutako gaiaren idatzizko galderak.
- 2- Irakasleek, Ordezkariekin batera, Ebaluazio amaierako azterketa pilaketa handiegiak saihestu egin behar dituzte.
- 3- Irakasleak, gutxienez, astebeteko aurrerapenez adierazi behar dio Ordezkariari Azken Probaren eguna, tartean asteburu bat duela. Bestelako Kontrol txikiagoetan, arrazoizko denbora tarte batekin (hiru bat egun gutxienez) adierazi behar du Irakasleak.
- 4- Azterketa bat hutsegin behar duen ikasleak beti jakinarazi behar dio Irakasleari, aurrez ahal bada, eta, nolahi ere, hutsegitea justifikatuz. Hutsegiteko arrazoia azterketa egunean bertan gertatuko balitz, gurasoek deitu beharko dute. Kasu hauetan, eskolara itzuli eta hurrengo egunean edo hurrengoetan egingo da azterketa, irakasleak egokien irizten dionean. Hutsegitea gurasoek behar bezala justifikatu gabe geratuko balitz, ikasleak azterketa hori beste data batean egiteko aukera galduko luke.
- 5- Azterketa egiteko izendatutako denbora osoan gelan egon behar dute ikasleek. Azterketa 2 ordu edo gehiagokoa balitz, ikasleak gelan egongo dira, ordubetean gutxienez (2. Batxilerreko hiruhilabeteko edo amaierako azterketetan izan ezik).
- 6- Ikasleek zintzotasun akademikozko jokaera mantendu beharra daukate azterketa eta ariketetan, norbere ahaleginaz eta kasu bakoitzean irakasleak baimendutako liburu, material eta baliabideez bakarrik balia daitezkeelarik. Azterketa batean, ikastetxeko elkarbizitzaren aurkako jokabidetzat hartuko da kopiatzea. Azterketa eta frogak egin bitartean, ikasleek mahai gaina garbi izan behar dute (egutegi, estutxeak...). Gogoratu gainera, mobil, PDA eta horrelakoak klasean izatea ere debekatua dagoela. Azterketa bakoitzaren hasieran, ikaslea, dituen material guztiak behar den lekuan gordetzeaz arduratuko da.
- 7- Ezohiko azterketa garaian, ikasleak ez dira korridoreetan ibiliko, azterketa egiten ari direnen arreta ez galaraztearren.
- 8- Egiten dituzten Kontrol guztien notak eman behar zaizkie ikasleei, eta azterketak zuzenduta itzuli, ahal den eperik laburrenean.
- 9- Ebaluazio bat gainditzen ez duten ikasleek Errekuperazio Proba baten eskubidea daukate. Proba hau Ebaluazio osoaz izango da; berau amaitu eta ez oso epe luze batean, eta Errekuperazio jarduerak egin ondoren egingo da. Errekuperaziorako eskubidea lehen bi Ebaluazioetan bakarrik izango dute.
- 10- Ekainera Ebaluazio bat gainditu gabe iristen diren ikasleek, Ebaluazio horren Errekuperazio Proba egin beharko dute, ebaluazio jarraitua ez denean. Gainditu gabe, ebaluazio bat baino gehiago balitu, irakasgai horren gutxienekoen Azterketa egin beharko du. Gutxienekoen

azterketan, irakasleak Irakasgai horren oinarrizko helburuak menderatzeko gutxienezkotzat dituen edukiak sartuko dira. Ikasleek garaiz jakin behar dute (gutxienez hirugarren ebaluazioa amaitu eta berehala) zein diren gutxieneko edukiak.

- 11- Azken Ebaluazioko saioaren aurretik (nola proba arruntean ala ezohikoan), momentuak izendatuko dira, ikasleek beren Azterketa zuzenduak ikusteko. Era honetan, egindako akatsak ikus ditzakete eta zuzenketari buruzko argibideak eskatzeko eskubideaz baliatu.
- 12- Irakasleek gorde egin behar dituzte Azterketa hauek, Gurasoen elkarrizketa egunak pasa bitartean, gutxienez.
- 13- Irakasgai bateko ebaluazio guztiak gaindituak dituzten ikasleek ez daukate azken probara aurkeztu beharrik, errepasso garaiko beren jarrera egokia izan bada behintzat.
- 14- Irakasgaiaren nota altxatu nahi balute, aurkez daitezke azken probara, irakasleari jakinarazi eta berarekin hitz egin ondoren.
- 15- Irakasgai bat gainditua duten ikasleak berorren errepasso aldira joatera derrigortuta daude. Era berean, selektibitate-azterketaren prestaketa garaian, eskola-eguntzat hartzen dira egun hauek, beraz, ikasleek normaltasunez joan beharra daukate eskolara.

3.4. NOTAK.

- 1- Irakasle bakoitza da bere notaren arduradun. Alabaina, Ebaluazio saioaren printzipiotik abiatuz, ez da notak elkarren ondoan jartze hutsa, Irakasleen Klaustro osoa da edozein Ebaluaziotako behin betiko notak erabakitzen dituen. Beraz, Ebaluazio erabakigarrietan, Ekaineko ezohikoan batez ere, ikasleak bere irakasgaiaren egindako lana baloratu behar du, baina baita besteetan egin izan dezakeena ere.
- 2- Ebaluazio Saioa amaitu eta notak Idazkaritzari eman ondoren, behin betikoak dira hauek. Transkripzio akatsen bat egon bada, dagokion Irakasleak eta Tutoreak jakinarazi beharko dute. Erreklamazio ofizial bat balitz, aurreikusitako bidea jarraituko da.

3.5. V.AZTERKETEN ETA BESTELAKO LANEN BERRIKUSKETA.

ZUZENDUTAKO LANAK, PROBAK ETA ARIKETAK BERRIKUSTEA

Ikasleek, gurasoek edota legezko ordezkariak ikasleen errendimenduaren ebaluazioan eragina izango duten lan, proba eta ariketa guztiak ikusteko aukera izango dute. Behin, ariketa guztiak zuzenduta eta nota jarrita, aipatutako dokumentuen kopia edukitzeko eskubidea izango dute.

Ahozko eskabideetan ahozko erantzuna jasoko dute eta, aitzitik, idatzizko eskabideetan idatzizko erantzuna.

Zuzenketetan ez da nahikoa izango kalifikazio kualitatiboa edo kuantitatiboa jartzea. Egindako akatsak edo kalifikazioaren azalpen arrazoitua adieraziko da.

ARIKETA ZEHATZEI JARRITAKO KALIFIKAZIOEN AURREAN ERREKLAMAZIOAK EGITEA

Kalifikazioak jaso eta, bi eskola-egun izango dute ahoz aurkezteko alegazioak eta egindako lanak eta frogak berrikusteko. Alegazioak edo eskabideak irakasleari aurkeztuko zaizkio. Irakasleak, didaktika-departamentuari (arlotan bereko irakasleak) aholkua eska diezioke.

EBALUAZIO PARTZIALEN AURREAN ERREKLAMAZIOAK EGITEA

Ikasleek, ahoz zein idatziz, irakaslearen aurrean ebaluazio-aldi bakoitzari dagozkion erreklamazioak egin ditzakete. Dagozkion irakasleak erreklamazio guztiei erantzun beharko die, ahoz edo idatziz, jaso duen arabera.

Erreklamazioa ezesten den kasuetan, ikasleek, ahoz zein idatziz, zuzenean edo irakasle bitartez, departamentuaren esku-hartzea eska dezakete. Departamentuak, proposatutako azterketa programazioarekin bat ote datorren egiaztatuko du, baita departamentuan erabakitako irizpideak zuzen ezarri ote diren ere, eta erreklamazioa egin duen ikasleari, ahoz edo idatziz –erreklamazioa egin den modu berean– erantzungo dio.

Ebaluazio partziala gauza arrunta denez, ezin izango da kalifikazioaren aurkako erreklamaziorik egin, nahiz eta irakasleak kalifikazioari eutsi departamentuaren irizpidearen aurka. Hala ere, irizpide hori kontuan hartuko da azken ebaluazioaren aurkako erreklamaziorik eginez gero erabakia hartzeko.

KALIFIKAZIOAK JUSTIFIKATZEN DITUZTEN AGIRIAK GORDETZEA

Ikasturteko edozein unetan probak, lanak eta ariketak aztertu ahal izateko, irakasleek ikastetxean izango dituzte agiri guztiak, eskola-garai osoan eta, gutxienez, ikasturteko azken ebaluazioa egin ondoren erreklamazioak egiteko dagoen epea amaitu eta hiru hilabete bitartean.

Epe hori amaitu ondoren, agiriak suntsituko dira edo ikasleei eman, beti ere erreklamazio baten ondoren erabakia hartzeko beharrezkoak ez badira. Ondorio horietarako, kontuan hartu beharko dira bai erreklamazioan aipatu diren ariketak, baita ikasleak edo erreklamatzailerak aldarrikatzen duen kalifikazio bera izan duten ikasleen ariketak ere.

Edonola ere, erreklamazio bati buruzko erabakia hartzeko kontuan hartu beharreko ariketak edo agiriak gorde egin beharko dira, horiei buruzko erabaki administratiborik edo ekintza judizialik egin daitekeen kasuetan.

AZKEN KALIFIKAZIOEI BURUZKO ERREKLAMAZIOA

- a) Azken kalifikazioak argitaratu baino lehenago, irakasleek berrikusteko ordua jarriko dute. Irakasleak ikasleei banan-banan jakinaraziko die zein den haien nota. Irakasleak ikasleen adostasunak edo desdostasunak jasoko ditu eta, kalifikazio aurreikusia aldatu edo bere horretan utziko du.
- b) Kalifikazioarekin ados ez dauden ikasleek 48 orduko epea izango dute erreklamazioak egiteko, behin kalifikazioak formalki eman diren unetik zenbatzen hasita. Erreklamazioa egiteko, ikasketaburuari (koordinatzaile pedagogikoari) zuzendutako idatzi bat aurkeztu beharko du idazkaritzan. Irakasleak honako hauek idatzi behar ditu:
- c) Irakasleak jarri dion nota eta bere ustez zuzena ez den kalifikazioa; zilegi litzatekeen kalifikazioa, eta ikasleak erreklamazioa egiteko dituen arrazoiak.
- d) Irakasleak, halaber, aurreko ariketa zehatzen edo ebaluazio partzialen kalifikazioen aurrean egin ziren eta bere garaian aldeko ebazpena izan ez zuten alegazioak edo erreklamazioak erantsi ahal izango ditu, azken ebaluazioko emaitzan eragina izan badu.
- e) Ikasketaburuak (koordinatzaile pedagogikoa) dagozkion departamentuari(arlo bereko irakasleak) aurkeztuko dio erreklamazioa. Honek erreklamazioa aztertuko du. Hartara,

proposatutako proba , ikasgaiaren programazioarekin bat datorren erabakiko du, baita ebaluazio irizpideak zuzen aplikatu diren ere. Departamentuak erabakiko du irakasleak jarritako kalifikazioarekin ados dagoen ala ez. Kontuan izango ditu ebaluazio partzialetan egindako erreklamazioei buruz bidali diren txostenak.

- f) Kontuan izango du erreklamatzaileraren antzerako egoeran dauden ikasleei irakasleak zer kalifikazio jarri dien.
- g) Irakasleak azken ebaluazioan “gutxi” edo “gutxiegi” kalifikazioa jaso badu, eta haren kontrako erreklamazioa aurkeztu badu, eta ikasleak eskoletan ahoz egindako lanak besterik ez badira hartu nota jartzeko, kalifikazio negatibo hori ezin izango da bere horretan utzi, salbu eta eskoletan ahoz egindako lanei buruz nahiko informazio bildu bada.
- h) Departamentuak (arloan bereko irakasleak) bi eguneko epean hartu beharko du erabakia, erreklamazioa idatziz egiten den egunetik zenbatzen hasita.
- i) Departamentuak (arloan bereko irakasleak) bere erabakiaren berri emango dio ikasketaburuari (koordinatzaile pedagogikoari). Honek ikasleari helaraziko dio departamentuaren (arloan bereko irakasleak) erabakia.
- j) Irakaslearen erreklamazioa balioesten bada, ikasketa buruak (koordinatzaile pedagogikoak) haren berri emango dio zuzendariari.
- k) Zuzendariak, horrenbestez, agiri akademikoan dagokion zuzenketa egingo du.
- l) Erreklamazioa onartu ez, eta ikaslea, orandik ere, erabakiarekin konforme ez badago, erreklamazio-idatzia jarri diezaioke zuzendariari eta honek Hezkuntza-administrazioari helaraziko dio, eta Hezkuntza- administrazioak erabaki bat hartu beharko du.

3.6. IKASTURTEA ERREPIKATZEA

- 1- Irakasleen klaustroa da ikasle baten sustapena bidezkoa den ala ez erabakiko duena. Horretarako, irizpide hauek izango ditu kontuan:
 - Ikasturtean zehar jarreretan, arretan, lanean... izan duen portaera ikusi.
 - Atera diezaiokeen probetxua aintzat hartu.
 - Sustapenak edo errepikatzeak bere heldutasun pertsonalean lagundu ote diezaiokeen ikusi.
- 2- Ikasle bat ez sustatzea erabakiko balitz Irakasleen Klaustroa izango da errepikatze hori ikastetxean gitea komeni den ala ez baloratuko duena.
- 3- Ikasle batek ikastetxean urtea errepikatuko balu, honako alderdi hauek hartuko dira aintzat:
 - Ikasturtea errepikatzeko, Klaustroak izendatu dizkion gaietan, ikasleak udan lana egin duela eta hobekuntza izan duela ziurtatu egin beharko du.
 - Errepikatzeko onartua izan den ikasleak, hitz ematen du onartzen dituela, gutun idatzi batean zehazturiko eta bere eskuz izenpeturiko ondorengo baldintzak.
 - Eskola guztietara etortzeko konpromisoa; gainerako puntualtasun eta elkarbizitza arauak betetzeko konpromisoa.
 - Portaera zuzen eta egokia izatera eta lan eta ikasketa giroa sortzera konprometitzen da.

- 4- Aurreko konpromisoak ez betetzeak, ikaslea, gure heziketa Zentrotik, berehala eta behin betirako bidaltzea ekarriko du ondorioz.
- 5- Ikasleak ezin izango dira hurrengo mailara pasatu, dagokion ebaluazioa egin ondoren, indarrean dauden hezkuntza legeak dioen betekizunak bete ezean errepikapen eta promozio arloetan.

4. ELKARBIZITZA ARAUTEGIA.

4.1. DESEGOKIAK ETA AURKAKOAK DIREN NAHIZ BIZIKIDETZAN KALTE LARRIAK ERAGITEN DITUZTEN JOKABIDEAK ETA HORIEN ZUZENKETA

Aurreko atalean adierazitako **edozein eginbehar ez betetzea beti da, gutxienez, jokabide ezegokia**, zuzendu egin beharko dena kasu guztietan, eta elkarbizitzaren aurkako jokaeratzat edo elkarbizitza larriki kaltetzen duen jokaeratzat hartuko da, bere eskubideen jardunak eta eginbeharrak betetzeak heziketa elkarteko gainerako kideei eragiten dielako. Arautegi honetan zehaztasunez jasotzen dira ikasleen eskubideak eta betebeharrak, baita jokabide desegokiak bideratzeko **neurri zuzentzaileak** ere.

Arautegi honetan **jokabide mota desberdinak** biltzen dira: Jokabide **desegokiak**, Ikastetxeko **bizikidetzaren aurkakoak** eta **bizikidetzarentzat larriki kaltegarriak** diren jokabideak. Bada, horiek **baino ezin izango dira zuzendu**.

Ikastetxeko **irakasle eta hezitzaile guztiek**, beren hezitzaile zeregina beteaz, gelan edo ikastetxeko beste instalakuntzetan egindako **jokabide ezegokiak bideratzeko aurretik adostutako eta jakinarazitako neurri zuzentzaileak aplikatu ditzakete**, eta burutu behar dituzte, **zuzenean beren ardurapean daudenean, baita eskolako edozein gune hezitzailean daudenean ere**. Eta hitzez errieta egingo dio, unean bertan, elkarbizitzaren aurkako edo elkarbizitza hori larriki kaltetzen duen jokabideren batean aurki lezakeen edozein ikasleri, eta koordinatzaile zein zuzendariarengana aurkezteko aginduko, beharrezkoa iritsiko balio, unean bertan baita ere.

Aurrez esandakoaren kaltetan izan gabe, **Zuzendariari**, edo arautegiaren arabera bere ordez dagoenari **dagokio** elkarbizitzaren aurkako edo elkarbizitza hori larriki kaltetzen duen jokabideren baten aurkako **neurri zuzentzaileak aplikatzeko eskumena**.

Ondoren biltzen diren **jokaerak ere zuzendu egin behar dira**, ikastetxez kanpo edo eskola-orduz kanpo gertatzen direnean, **ikastetxeak antolatutako jarduera osagarri edo eskolaz kanpokoetan gertatzen badira**. Halaber, eskola-jardunarekin kausa-ondorio harremana frogatzen den guztietan beti zuzendu beharko dira.

Ikasleria osoari exijitu ahal izango zaio **errespetuzko tratua**, heziketa elkarte osoarenganako eta baita, une jakinetan, **heziketa lanean lankide diren (begiraleak, hizlariak etab.) beste langile guztienganako** ere.

4.2. PUNTUALTASUNA ESKOLETARA ETA IKASTETXEAREN HEZIKETA EKITALDIETARA ETORTZERAKOAN

Garrantzitsua da behartzea bere alderdi hezitzaileagatik. Irakaslea da bere gelako puntualtasunaren arduradun, eta bidezko mugen barruan lortu behar du.

Jokabide ezegokiak dira:

- Justifikatu gabeko puntualtasun falta, ez errepikatuak.
- Errepikatuak diren puntualtasun falten kasuan, Tutoreari dagokio, hasiera batean, parte hartzea. Tutoreak ikaslearekin eta bere familiarekin hitz egingo du, jokabide hori

zuzentzen saiatzeko, neurri zuzentzaileetara iritsi baino lehen. Gaiak izaera larriagoak hartuko balitu, klaustroari jakinaraziko dio tutoreak, eta kontsulta egingo du hartu beharreko neurriak hartzeko.

***Justifikatutako puntualtasun faltan kasuan, ikasleak bere justifikazioa ekarriko du, idatziz, hutsegitea gertatu ondorengo eskola-egun bateko epean.**

4.3. ESKOLARA ETORTZEA

Eskolara etortzea beharrezkoa da.

Jokabide ezegokiak dira:

- Eskolara edo eskola jarduera osagarrietara, justifikatu gabe egindako falta ez errepikatuak.
 - **Ikasle batek, edozergatik dela ere, ezingo balu aurretik ezarritako azterketa edota kalifikaziorako den jarduera batera etorri, gurasoek goizeko lehen orduan emailez edo telefonoz abisatu behar diote tutoreari.** Horrez gain komeni da irakasleari berari ere abisua ematea. Jakina, **aurretik jakiterik izango balute, derrigorrez, abisu utzi beharko dute** eta irakaslea ere jakinaren gainean egon behar luke.
 - **Hala egingo ez balute, ikasleari ez zaio ebaluazio horretan azterketa egiteko aukerarik emango eta ohiko ebaluazioan izango luke azterketa errekupeartzeko aukera, horrek izan ditzakeen ondorio guztiekin.**

Eskolara ez-etortzeak irakasle bakoitzak kontrolatzen ditu, eskolara etortze orrian, eta baita puntualtasun faltak ere. Irakasle bakoitzak sinatzen du orrian eskola bakoitzaren ondoren (Alexia). Tutoreak jasoko du orria egunaren amaieran, eta hau izango da eskolara ez-etortzeen kontua Ebaluazio batean eramango duena, dagokion Ebaluazio saioan horren berri emanez.

Justifikatu gabeko faltatzat hartuko dira hurbileko azterketa bat prestatzeko aitzakian egiten diren hutsegiteak. Horrelakoetan, eta hutsegite hori gertatuko balitz, azterketan ez onartzea izango da emango den neurri zuzentzailea.

Eskolara ez-etortze faltaren justifikazioa irakasleari erakutsi behar zaio eta Tutoreari eman, hutsegitea gertatu baino lehen (aurreikusia denean) edo eskolara itzuli bezain azkar.

Familiek lagundu egin behar dute Ikastetxearen ordenan eta diziplinan, eguneroko jarduera batzuetara huts egiteko, beharrezko ez diren baimenak ez eskatuz.

***Ikasleren batek egun bat baino gehiago huts egingo balu, guraso edota tutoreek ikastetxera deituko dute harreran ez etortzearen arrazoiak emanez eta zenbat denbora iraun dezakeen adieraziz, hala ikastetxeak momentu eta egoera horretan bideratu litzakeen indartze lanak prestatzen joan dadin.**

4.4. IRAKASLEEI ETA IKASTETXEKO LANGILEEI ERRESPETUA.

Jokabide ezegokiak dira:

- Irakasleen edo agintari akademikoen esanak ez betetzea, horrekin batera, mespretxu, irain edo nahita egindako diziplina ezik ez dagoenean, eta baita beren zereginetan diharduten ikastetxeko gainerako langileen oharrei kasurik ez egitea ere.
- Heziketa elkarteko kideen aurkako jarrera, keinu edo begirunerik gabeko hitzak.

- Ikastetxeko langileei gezurra esan edo gezurrezko informazioa ematea, heziketa elkarteko kideren bati kalte egiten ez diotenean.

Ikastetxeko elkarbizitzaren aurkako jokabidetzat hartzen dira:

- Agintari akademikoei edo irakasleei egindako desobedientzia ekintzak, diziplinarik ezarekin edo adierazpen iraingarri, mespretxu, erronka edo mehatxuekin batera doazenean, edo baita beren zereginetan diharduten ikastetxeko gainerako langileei ere.
- Ikaskideen edo heziketa elkarteko beste kideen aurkako mehatxu edo iraintzeko adierazpideak, edo baita heziketa elkarteko gainerako kideen aurkako keinu edo jarrerak, zalantzarik gabe, eraso ahalegin edo mehatxu gisa uler daitezkeenean.
- Heziketa elkarteko edozein kideren aurkako eraso fisikoa, ikastetxeko elkarbizitza larriki kaltetzeko jokabidetzat har ez daitekeenean.

Elkarbizitza larriki kaltetzen duten jokabidetzat hartzen dira:

- Diziplina ezaren edo obedientzia ezaren ekintza esplizituak, ezarritako neurri zuzentzaileak betetzeari uko egitearekin batera, eta baita heziketa elkarteko kideen aurka oso iraingarri edo mingarritzat hartzen diren adierazpideak ere, hitzez, idatziz edo baliabide informatiko edo ikus-entzunezkoen bidez eginak.

4.5. IKASKIDEEI ERRESPECTUA

Jokabide ezegokiak dira:

Ikastetxeko elkarbizitzaren aurkako jokabidetzat hartzen dira:

- Kalifikaziorako balio duten azterketa, proba edo ariketetan kopiatzea edo kopiatzen uztea, edo baimendu gabeko materialak edo tresnak erabiltzea bertan.
- Bestearen ohore, intimitate eta irudiaren eskubideak ez errespetatzea, berak aurrez berariaz adierazitako onespenerik gabe grabazio-bideak erabiliz.
- Besteari, indarkeria fisikoa erabili gabe, berak eskubidea duen zerbait egitea eragozte, era berean, indarkeria erabiltzera iritsi gabe, bere borondatearen aurkako zerbait eginaraztea.
- Jokabide ausartegiengatik arriskua sortu, zauri fisikoak eragin ditzaketan objektuak erabiliz.
- Diskriminazioa suposa dezakeen edozein ekintza edo jokabide, jaiotza, adina, arraza, sexua, egoera zibila, gaitasun fisikoa edo psikikoa, osasun egoera, kultura, erlijioa, sinismena, ideologia edo bakoitzak izan dezakeen beste edozein egoera edo zirkunstantzia dela bide.
- Aurrez adierazitako jokabide ezegokietako baten errepikapena, hiruhilabeteko berean hiru aldiz izateraino.

Elkarbizitza larriki kaltetzen duten jokabidetzat hartzen dira:

- Heziketa elkarteko gainerako kideen aurkako eraso fisikoa, zauritzeko arrisku larriarekin.
- Bestearen ohore, intimitate eta irudiaren eskubideak ez errespetatzea, berak aurrez berariaz adierazitakoaren kontra grabazio-bideak erabiliz.
- Elkarbizitzaren aurkako diren jokabide oro, elkartearen edo nahitako publizitatearen zirkunstantziak bat egiten badute, dela ahoz, idatziz edo informatikaren bidez, edo baita eskola-jazarpen egoeraren batean parte hartzen dutenean ere.

4.6. IKASTETXEKO EDO IKASKIDEEN MATERIALARI ERRESPETUA

Denok, irakasle nahiz ikasle, ardurak hartu behar ditugu zentzu honetan, ahal dugun ikasgela, korridore eta patio ordenatu eta txukunenak izateko, geure ekarpena eginez.

Jokabide ezegokiak dira:

- Ikastetxeko hornikuntza elektronikoa, mekanikoa, telefonikoa, informatikoa edo beste edozein motatakoa, berariazko baimenik gabe erabiltzea.
- Ikastetxeko lokalak, bertako materialak edo heziketa elkarteko gainerako kideen objektu eta gauzak hondatzea, asmo txarrez izan gabe, zabarkeria hutsez egiten denean.

Ikastetxeko elkarbizitzaren aurkako jokabidetzat hartzen dira:

- Jakinaren gainean edo erabilera okerragatik, kalteak eragin direnean, ikastetxeko lokaletan, altzarietan, materialetan edo dokumentuetan, edo heziketa elkarteko gainerako kideen gauzetan, eta ikastetxeko elkarbizitza larriki kaltetzen duten jokabideak ez direnean.

Elkarbizitza larriki kaltetzen duten jokabidetzat hartzen dira:

- Bandalismo ekintzetan parte hartzea edo instalazioetan, ikastetxeko ondasunetan, bertako langileei, beste ikasleei edo hirugarrengoei kalteak eragitea.
- Dokumentu bat edo eskola erregistro bat kaltetzea, trukitzea edo aldatzea, nola idatzizkoan ala informatikoan, eta baita dokumentu akademikoak baimenik gabe ezkutitzea edo erretiratzea ere.

4.7. JABETZARI ERRESPETUA

Jokabide ezegokiak dira:

- Ikaskideen gauzak intentzios erabiltzea haien gogoz kontra.

Ikastetxeko elkarbizitzaren aurkako jokabidetzat hartzen dira:

- Objekturen bat lapurtzea.

Elkarbizitza larriki kaltetzen duten jokabidetzat hartzen dira:

- Ikastetxeko elkarbizitzaren aurkako jokaera errepikatzea eta altzariak, instalazioak edo pertsonak bortxatuz objektuak lapurtzea.

4.8. IKASTETXEAREN IZAERAREKIN LOTURA DUTEN IDEIA ETA EKINTZEI ERRESPETUA

Jokabide ezegokiak dira:

- Alderdi hauen aurka, errespetu faltazko lehen portaera denean, garrantzi gutxikoa.

Ikastetxeko elkarbizitzaren aurkako jokabidetzat hartzen dira:

- Hutsegite arina errepikatzea edo errespetu faltazko portaera garrantzitsua denean.

Elkarbizitza larriki kaltetzen duten jokabidetzat hartzen dira:

- Hutsegite larria errepikatzea edo errespetu faltazko portaera oso garrantzi handikoa denean.

4.9. LANGIROA

Irakaslearen edo eskola-lagunen jarduera akademikoa errespetatu behar da, eta arreta eta ahalegin akademikoa erakutsi (lanak aurkeztu, geletara material egokia ekarri...).

Jokabide ezegokiak dira:

- Kalifikaziorako balio duten azterketa, proba edo ariketetan kopiazea edo kopiatzen uztea, edo baimendu gabeko materialak edo tresnak erabiltzea bertan.
 - Ikasle bat **azterketa kopiatzen saiatzen bada edo kopiatzen harrapatuz gero, azterketa kenduko zaio eta 0 (zero) izango du azterketa horretan. Gurasoei jakinaraziko** zaie eta jarrera desegokiei dagozkien neurri hezitzaileez gain, horrez gain, **ebaluazioko arloko nota globala “Gutxi” izango da.** Jakina, jarrerazko adierazlean ere gutxi jarriko zaio. Ikasleak **errekuperatzeko aukera izango du ohiko ebaluazioan.**
 - **Azterketetan debekatuta dago sakelekoa klasean izatea. Era berean, debekatuta dago azterketetan smartwatch edo kanpoko komunikazioa ez baimendua bideratzen duen edozein gailu erabiltzea.**

Ikastetxeko elkarbizitzaren aurkako jokabidetzat hartzen dira:

- Azterketa ereduak edo erantzunen kopiak lapurtzea, edo baita banatu, saldu edo erostea ere.
- Nota-orria edo beste edozein dokumentu aldatzea, edo baita gurasoentzat edo legezko ordezkariarentzat diren irakasleen oharra ez eramatea ere.
- Ikastetxeko jardueren garapen normala aldatzen duten justifikazio gabeko ekintza indibidualak edo talde mailakoak, ikaskideen ikaste eskubidea benetan oztopatzen dutenean.
- Ikastetxean eta eskola orduetan ikus-entzunezko aparatuek eta/edo elektronikoak (mp3, gameboys, mugikorak, ipod...) erabiltzea. Erabilera hori emango balitz irakasleak kendu egingo dio tutore edo gurasoak bila etorri arte. Salbuespen gisa, irakasleak onartu dezake aparatu hauen erabilera, beti ere ikasgelako lan tresna gisa.
- Hezkuntza Komunitateko kide guztiek dute beren irudia eta intimitatea errespetatua izateko eskubidea. Eskubide honen aurkako edozein ekintza bizikidetzari kalte larria eragiten dion jokabidetzat joko da.

4.10. OSASUNAREN ZAINTZA

Higienearen aurkako ekintza da, gelan, korridoretan, eskaileretan edo ikastetxeko beste lekuetan erretzea, alkohola edota bestalako droga edo sustantzia kaltegarriak kontsumitzea. Horregatik dago Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Hezkuntza sailak debekatua. Halaber ezingo da inola ere halako sustantziarik eskolara ekarri Ikastetxeko elkarbizitzaren aurkako jokabidetzat hartzen dira:

- Eskola orduetan, getan janariak edo edariak hartzea, edo baita ikastetxeko esparruan erretzea ere.

Elkarbizitza larriki kaltetzen duten jokabidetzat hartzen dira:

- Heziketa elkarteko kideen osasunarentzat eta osotasun pertsonalarentzat oso kaltegarriak izan daitezkeen jokaeretara kitzikatzea, baita eredia emanez ere, hala

nola, tabako, alkohol eta droga kontsumoen bidez. Halaber **erabat debekatuta dago osasunarentzat kaltegarriak izan daitezkeen sustantziak eskolako instalakuntzetan gordetzea.**

- Zauriak eragiteko arrisku larria duten liskarrak edo jokabide erasokorrak eragitea, edo beroietan nahastea.

4.11. GELATIK EGOZTEA

Ahal dela ez da eskolatik inor egotzi behar, oso muturreko kasuetan izan ezik, kurtsoko gainerakoentzat eragozpenak eragin ditzakeelako eta ikasle berarentzat denbora galtzea delako.

Gelatik egozteak ezinbestekoa bada, kontuan izan behar da oso zigor larria eta ezohikoa dela gelatik egozteak, azkeneko irtenbidea dela, ez lehenbizikoa.

Gelatik egozteak gertatzen bada, jarduera positiboren bat edo galdutako denboraren erreperazioa egitea proposatuko du irakasleak.

Irakasleak, era berean, eskolara etortze-orrrian gelatik egoztearen arrazoiak idatziko ditu.

Ikasle bat Ebaluazio berean bi aldiz izan bada gelatik egotzia, dagokion tutoreak familiari jakinaraziko dio.

Ebaluazio berean ikasle bat hiru aldiz izan bada egotzia eskola-jardunetik kanpo utziko da egun baterako.

Eskolatik egozteak behin eta berriro gertatuko balira, elkarbizitzaren aurkakotzat edo ikastetxeko elkarbizitza larriki kaltetzen duten jokabideentzat hartuko dira.

5. HEZIKETA NEURRI ZUZENTZAILEAK

Ikastetxeko Heziketa Elkartearen bizitza ez dago irizpide arauzale baten bidez markatua, baizik elkarbizitzak, elkarrekiko konfiantzak eta laguntasun giroak izan behar dute nagusi. Nola nahi ere, ikastetxea indarrean dagoen legeriaren menpe dago eta, beraz, ekintza zuzentzaileak aipatu Dekretuan adierazitakoaren arabera aplikatuko dira. Horretarako *“Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez besteko ikastetxeetako ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzko dekretua aplikatzeko gida”* izango dugu erreferentzia gisara.

Dekretuan aipatzen den legez, **neurri zuzentzaileek helburu hezigarria izango dute**, batez ere, hala zuzendu behar den jokabidea egin duen ikaslearentzat, nola gainerako ikasleentzat. **Neurri zuzentzaileak hezkuntza-jardunaren baitan beteko dira, hainbat arlotako oinarrizko gaitasunak lortzen laguntzeko**, hala nola gizarte- eta herritartasun-arlokoak nahiz autonomia eta ekimen pertsonalaren arlokoak.

Ikastetxeko edozein hezitzailek eskuhartu ahal izango du ikastetxeko instalazioetan gerta daitezkeen jokabide desagokiak zuzenduz eta ikaslea ohartaraziz, haien zaintza zuzenaren pean dauden bitartean. Era berean, hezitzaileek ahozko ohartarazpena egin ahal izango diote bizikidetzaren aurkako jokabidea egiten ari den edo bizikidetzak hori larriki kaltetzen duen jokabide batean harrapatzen duen edozein ikasleri. Jarrera horien aurrean, **hezitzaileek ezarritako esku-hartze prozesua jarraitu beharko dute, eta gertakariaren berri eman beharko diote berehala dagokion tutoreari edo koordinatzaileari**. Beharrezkoa izanez gero, **gertakariak hezkuntza-zikloari eta -ikasturteari dagokion gorabeheren erregistro-orrrian jaso beharko ditu**.

2008ko eskubide eta betebeharrei buruzko dekretuaren 33. artikuluari jarraituz, jarraian jasotako **jokabideak zuzendu egingo dira ere eskola esparrutik edo ordutegitik kanpo gertatu direnean**, betiere, ikastetxeak programatutako jarduera osagarriak edo eskolaz kanpokoak

egiten ari direnean, **jantokian, liburutegian** edo **garraio**-zerbitzuak erabiltzen ari direnean edo eskola-jarduerarekin kausa-ondorio harremana dagoela egiaztatzen denean

Jokabide ezegokiak irakasleek eta tutoreek zuzenduko dituzte, ikaslearen pertsonarekiko errespetuzko eta laguntzeko harreman positiboa mantenduz beti ere, ondorengo neurri hauetakoren bat edo gehiagoren bidez:

- Jokabide ezegoki zehatzaren eta bere ondorioen inguruko gogoeta.
- Jokabide ezegokiaren aitortza, horren ondorioz kaltetuak izan daitezkeen pertsonen aurrean.
- Ikasketa jarduerak egitea eta jokabide zuzenaren bideak barneratzea.
- Hondatutako materiala ordezkatzeta edo konpontzea.
- Jokabide ezegokiarekin lotura duen eskolako lanen bat egitea.

Elkarbizitzaren aurkako jokabideak zuzentzeko, zuzendariak, ondorengo jokabide hauetakoren bat edo batzuk erabil ditzake:

- Elkarbizitzaren aurkako jokabide zehatzaren eta bere ondorioei buruzko gogoeta, eta zuzentzeko orientabideak.
- Idatzizko ohartarazpena, bertan, tutorearen edo, bere kasuan, gaiko irakaslearen txosten zehatza sartuko delarik.
- Ohartarazpena gurasoen edo legezko ordezkarien aurrean.
- Ikaslea taldez edo gelaz aldatzea, aldi baterako edo behin betirako.
- Heziketa lanak, edo eragindako kalte materialen konponketako lanak egitea, edo, behar balitz, ikastetxeko jardueren hobekuntza eta garapen lanak, lan hauek elkarbizitzaren aurkako jokaerarekin zerikusia duten neurrian.
- Gai bat edo gehiagoren eskoletara, edo eskolaz kanpoko jarduera edo zerbitzuetara joateko debekua, gurasoekin elkarrizketa izan bitartean, ez hiru egun baino gehiago.
- Eskolaz kanpoko jardueretan parte hartzeko eskubiderik gabe uztea, ez hiru hilabete baino gehiago.
- Eskolaz kanpo izango diren jarduera osagarrietan parte hartzeko eskubiderik gabe uztea, ez hiru hilabete baino gehiago.

Kasu guztietan ere beharrezkoa izango da ikaslearen alde aurreko entzunaldia. Ikastetxeko jardueretan parte hartzeko eskubiderik gabe uzten denean, beharrezkoa izango da gurasoen edo legezko ordezkarien entzunaldia ere.

Azterketa zein froga batean kopiatzea Elkarbizitzaren aurkako jokabide larritzat hartzen da. Ondorioz, ebaluaketa batetako frogaren batean kopiatzeak froga hori ez gainditzea suposatuko du. Artean, ebaluaketa azterketa batean kopiatzeak ebaluaketa hori ez gainditzea suposatuko du. Kasu horretan, ikasgaia ekaineko errekuperaketetarako geratuko da. Ohiko errekuperaketetan kopiatuko balu ez ohiko deialdian gainditzeko aukera izango luke. Ez ohiko deialdian kopiatuko balu, azkenik, ikasgaia gainditu gabe geratuko da.

Zuzendariak zuzendu ditzake, **ikastetxean elkarbizitza larriki kaltetzen duten jokabideak**, aurreko puntuan jasotzen diren puntuetako bat edo gehiagoren bidez, eta baita ondorengo beste hauetako edozein erabiliz ere:

- 1- Heziketa lanak, edo eskolako jarduerak hobetzeko edo garatzeko izan daitezkeenak, edo eragindako kalte materialak konpontzeko lanak eskola-orduz kanpo egitea.

- 2- Gai bat edo gehiagoren eskoletara joateko eskubiderik gabe uztea, hiru egunetik hogeirako tartean, ebaluazio jarraitua galdu gabe horregatik.
- 3- Ikastetxera etortzeko eskubiderik gabe uztea hiru egunetik hogeirako epean, izendatzen zaizkion prestakuntza jarduerak dagokion irakaslearen kontrolpean egiteko betebeharrarekin.
- 4- Ikastetxez kanpoko eskolaz kanpoko jarduera osagarrietan parte hartzeko, edo zerbitzu jakin batzuk erabiltzeko eskubiderik gabe uztea, ikasturtea amaitu bitartean ere iraun dezakeelarik.

Artikulu honetako 2, 3 eta 4 apartatuetan jasotzen diren neurriak, erabil daitezke, elkarbizitzaren aurkako jokaera larriak zuzenduko ez balira, 1. apartatuan adierazitakoak aplikatu arren.

Ikaslea, aldez aurretik, ikastetxeko elkarbizitza larriki kaltetzen duten jokabideengatik zuzendu behar izan bada, behin baino gehiagotan ikasturte berean, ikaslearen matrikula beste ikastetxeren batera aldatzeko proposa diezaioke zuzendariak administrazioari. Heziketa administrazioak erabakiko du gertakarien aurrean zer egin behar den.

Ikastetxeko elkarbizitza larriki kaltetzen duen jokabidea, ikastetxeko irakasleren baten bortxa edo eraso denean, zuzenean proposa daiteke aipatu aldaketa, ikaslea aurrez zuzendu beharrean izan ez bada ere. Heziketa administrazioak erabakiko du gertakarien aurrean zer egin behar den.

Neurri hauek hartzeko orduan, ikaslearen jokabidean eragina izan dezaketen zirkunstantzia pertsonal eta sozial guztiak hartu behar dira aintzat, irakasleei edo zuzendariari, ikaslearen eginbeharrak betetzearen garrantzia behar bezala ulertu eta baloratzeko balio diezaieten.

- a) Zer-nolako kaltea eragiten duten jokabideek hezkuntza-komunitateko gainerako kideen eskubideen eta betebeharren egikaritzan.
- b) Jokabide horiengatik edo horien ondorioz, hezkuntza-komunitateko gainerako kideek beren duintasunean edo agintean jasan duten kaltea edo jasan dezaketena.
- c) Ikasleen jokabidean eragina duten inguruabar pertsonalak eta sozialak, behar bezala baloratzeko zer-nolako garrantzia duen haien betebeharren urrapenak eta 3.3. artikuluan adierazitako oinarritzko gaitasunetan izan ditzaketen gabeziak.
- d) Jokabidearen ekintzak egiteko gertatu diren inguruabarrak.

Halaber, **neurri zuzentzaileak proportzionaltasunez** aplikatzen direla bermatzeko irizpideak (dekretoaren 41. artikulua) kontutan hartu beharra ikusten da, besteak beste, erantzunkizuna arintzen duten inguruabarrak edo erantzunkizuna larritzen dutenak.

Kontutan izan behar da, baita ere, eskubideen aurkako jokabideak zuzentzeko neurriak ez direla, erabakiak izan ondoren, finkoak eta mugiezinak, aukera izango baita, baldintza batzuk betez gero, neurri horiek eten, arindu edota kentzeko ere. Izan ere, bizikidetzaz arduratzen den talde eragileak, zuzendaria barne, **ahal dela, neurri zuzentzaileak ezarri aurretik, elkarbizitza planaren argira sustazen diren bide alternatibo eta hezigarriak aplikatzen saiatuko baita:** adiskidetzeari, egindako kalteraren onartzea, barkamena eskatzea, gurasoekin elkarlana eta hauen

parte hartzea jarrerak zuzentzerako orduan, ikasleen konpromisua egindakoa ez errepikatzen... azken baten, bide alternatiboak eta hezitzaileak lehenetsi behar dira.

Bestalde jokabide desegokien aurreko eskuhartzean **prozedura zehatza eta argia jarraitu behar da, tajuz bereiztuz** irakasleak eta hezitzaileek eurek bideratu ditzaketan **jokaera ez egokiak**, batetik, eta Elkarbizitza taldearen (BAT taldea ere baderitzo) eskuartzea eskatzen duten **jokaera desegoki nabarmenak edota elkarbizitarren aurkakoak**, bestetik. Azken hauek ondo araututako prozedura eskatzen dute, batzuetan idatzizko ohiko prozedura jarraitu beharko delarik.

Hartu beharko diren gainerako izapide eta neurrietan, eta arautegi honetan jaso ez direnetan, Eusko Jaurlaritzaren, 2008ko abenduaren 16ko data duen, ikasleen eskubide eta betebeharren dekretura joko dugu.

AZTERKETETAN KOPIATZEA

Dekretuaren arabera, Ikastetxeak izan behar duen helburu hezigarria aintzat hartuz, lehentasuna eman behar zaio **“bizikidetzaz gatazkak konpontzeko adiskidetzaren eta kalte konpontzearen mekanismoak baliatzeari”**. Era berean, Dekretu horren arabera, beste ikasle batzuek azterketetan kopiatzea edo kopiatzea erraztea **jokabide desegokitzat hartzen da (30.artikulua)**, ondorioz, neurri zuzentzaileek proportzionalak izan behar dute. Neurri zuzentzaile hauek ezin dute eduki, inondik inora, zigortzeko asmoa ikaslearen jarrera berbideratzea eta horretaz hausnartzea baizik.

Hori dela eta, mota honetako egoera baten aurrean, hauxe izango da gure prozedura:

- Ikasle bat kopiatzen harrapatuz gero, azterketa horretan "0" izango du eta azterketa-froga horri dagokion irizpidean (edo irizpideetan bat baino gehiago badira) ere "0" jarriko dugu.
- Beste irizpideetan daukan nota mantendu eta gordeko zaio. (Kontuan hartu behar dugu konpetentzien bidez ebaluatzen ditugula beraz ezinezkoa da irizpide eta konpetentzia guztietan "gutxi" jartzea horiek gainditu baditu.)
- **Ebaluaketan "gutxi" agertuko zaio.**
- Ebaluaketa ostean (beti ebaluazio ostean) gainditu gabe dituen azterketak egingo ditu. Kasu honetan, **errekuperazioa ahalik eta lasterren egingo da**, ebaluazioa egin ondoren. Beraz ez dira utziko kurtso amaierarako. Erabaki hau bat dator Dekretuak zehazten duenarekin (**“Ikasleen betebeharrak ez betetzeko jokabide guztiak lehenbailehen zuzendu beharko dira”**).
- Hirugarren ebaluaketan honelako egoera gertatzekotan, berreskuratzeko aukera luzatuko diegu ikasleei **ohiko deialdia egin baino lehen**.
- Berreskurapena behin eginda, azken emaitza jartzerakoan, gordetako notak (gainditu dituen irizpideen notak) mantenduko zaizkio.
- Ebaluazio berean hiruz aldiz errepikatzen bada egoera, ikaslearen jarrera elkarbizitzaren aurkako jarrera bezala ulertuko da (31.artikulua) horrek ekar ditzakeen ondorioekin (35.artikulua).

6. JANTOKIKO ERABILERA

Jantokiak duen **izaera hezitzailearengatik berebiziko garrantzia dauka ikasleen garapenerako**. Batetik, ikasleak modu sano eta orekatuan elikatze helburua dauka, baina baditu beste hainbat helburu inportante, hala nola, osasunaren zaintzari begirako ohiturak lantzea, edota bizikidetzaz giro partehartzailea sustatzea baita, gelako dinamiketarik haratago, elkarrekin errespetuz

jokatzeko eta disfrutatzeko tartea eskeintzea ere. Beraz, balioetan hezteko gune berezia da jantokia, ikastetxean sustatzen diren balio askoren uztarketa ematen delako, errespetua, bizikidetzaz, norbere buruaren zaintza, higiena, elikadura ohitura sanoak, birziklatzea eta kontsumo arduratsua, besteak beste.

Jantokia, **ikastetxeko beste guneak bezala, gune hezitzailea da** eta ondorioz errespetuz jokatu behar da espazio honetan. Horregatik, ikasleen jokabideak errespetuzkoa eta arretatsua izan behar du uneoro, hala jantokiko nahiz patioko langileekin, nola gainerako ikaskideekin zein bertan dauden ikastetxeko gainerako langileekin. Horretarako, erabilera egokia emateko asmoz eta **elkarbizitza arauak bete daitezzen erabilpen arautegi honetan biltzen diren xedapen guztiak zaindu behar dira**. Kontutan izan behar da, halaber, jantokiaren erabilera eremuan gertatutakoak, eskola-jardunarekin kausa-ondorio harremana izaten dutela gehienetan eta horregatik zuzendu beharko dira gertatzen diren jarrera desegoki guztiak.

Egia da arauak beharrezkoak direla edozein giza talde batzen den eremutan, baina jantokiaren izaerarengatik, inon baino gehiago da beharrezkoa bertako erabiltzaile guztien lankidetzaz eta parte hartzea (ikasle, guraso, langile eta hezitzaile,...) hori baita modu bakarraz zerbitzua hobetzeko eta, aldi berean, denon gustuko espazioak izatea bai jatorduan, bai jatordu osteko tartean ere.

ERABILTZAILEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

Zuzentasuna mantendu behar da kanpoko portaeran, jaterakoan eta auto-zerbitzua erabiltzerakoan. Ikastetxeko Heziketa Elkartearen bizitza ez dago irizpide arauzale baten bidez markatua, elkarbizitzak, elkarrekiko konfiantzak eta laguntasun giroak izan behar dute nagusi. Nola nahi ere, **ikastetxea, indarrean dagoen legeriaren menpe dago eta, beraz, ekintza zuzentzaileak aurretik aipatutako 2008ko dekretuan adierazitakoaren arabera aplikatuko dira.**

Gune hezitzailea den aldetik, **erabiltzaile guztiek dute araudi honetako 1.atalean eta 2.1 atalean biltzen diren eskubide, betebeharrak eta eginbeharrak guztiak.** Azpimarragarri dira bereziki, jantokiarekin lotutako betebeharrak eta oinarritzko jarraipide hauek:

1. Jantokian **denetik jan behar da**. Plater bakoitzeko errazioaren **kantitatearen erdia jan behar da gutxienez** eta plater bat errepikatuzko, biak bukatuta egon behar dira.
2. Jantokitik kanpora ezin da jatekorik atera.
3. Begiraleen baimena behar da jantokitik ateratzeko.
4. **Garrantzitsua da eskaileretan eta jantoki inguruko giroa zaintzea**, gerta daitezkeen zarata eta garrasiak saihestu behar dira, eta ahalik eta gutxien molestatzen ahalegindu behar da. Argi utzi behar da hori **ez dela baloiarekin jolasteko lekua**.
5. **Errespetatu behar dira jantokiko langileak baita jolastokiko begiraleak ere**, PERTSONA GUZTIAK, ikaskideak, eta zerbitzu hori erabiltzen duten zentroko gainerako langileak..
6. **Errespetatu behar da ilarako ORDENA eta jantokiko TXANDAK** (mailari dagokion ordutegia), eta kasu egin behar zaie begiraleek ematen dituzten jarraipiderei.
7. GARBIA izan. Erabili mahai-tresnak modu egokian, eta ez jolastu janariarekin edota urarekin.
8. **Bukatutakoan, JASO eta atondutako tokietan utzi erabiltako ontziak eta tresnak.** Jantokitik irten baino lehen, hartu norbere gauzak; ez utzi liburuak, arroparik edota bestelako objekturik jantokian.

9. **Eskatu begirunez**, eta izan pazientzia; itxaroten jakitea ere garrantzitsua da eta, ez ahaztu bertako langileak euren lana ahalik eta ondoen betetzean saiatzen direla.
10. **Jantoki osteko denborak** araututa daude eta oso garrantzitsua da ikasturte bakoitzari dagozkion eremuak erabiltzea jolasteko. **Begiraleei kasu egin behar zaie eta gogoratu eskola eremuan ezin direla mugikorrak edo eta bestelako gailu elektronikoko digitalik erabili. (Beharrezkoa izanezkeroko dokumento honetan 7.3. atalean jasotako neurri zuzentzaileak aplikatuko dira)**

DBHko araudi orokor honetan jasotakoez gain, **Jantokiak badu funtzionamendurako barne araudia, eta begiraleei dagokie horiek betearazteko erantzunkizuna.** Hauxek dira oinarritzkoenak:

Hutsegite arina	Neurri hezitzailea	Arduraduna
Plater bakoitzeko errazioaren gutxieneko kopurua ez jatea.	Begiraleak ahozko ohartarazpena egingo dio eta jaten ahalegintzeko eskatu. Tarte bat emango zaie dagokien kopurua jan arte.	Begiralea
Begiraleei edota ikaskideei errespeturik gabe hitzegitea.	Ahozko ohartarazpena., jarrera zuzendu dezan eskatuz. Eta tutoreari adieraziko zaio.	Begiralea eta tutorea
Erretiluak, mahai-tresnak, edalontziak edo janari-arrastoak mahaian uztea	Mahaian utzitakoa behar bezala jasotzeko eskatuko dio begiraleak	Begiralea
Jantokian janaria eta/edo ura botatzea	Botatakoa jasotzeko eskatuko zaio	Begiralea
Sarreran eta irteeran nahasmendua sortzea	Ohartarazpena eta begiralearen aginduei kasu egin.	Begiralea
Oihukatzea eta ingurukoak molestatzea	Ahozko ohartarazpena. Lekuz aldatu.	Begiralea
Ordutegia ez errespetatzea	Ilaran azkena jartzea, eta begiraleen aginduei kasu egin.	Begiralea
Jantoki osteko jolastorduan begiraleei eta ikaskideei errespeturik ez erakustea.	Ohartarazpena eta begiraleak tutoreari adierazi.	Begiralea eta tutorea
Jantokitik edo eskolako eremutik kanpora baimenik gabe ateratzea	Falta larritzat hartuko da eta jarrera desegokien trataera emango zaio. Jantokiko arduradunak tutoreari eta familiari mezua egun berean bidaliko die.	Jantokiko arduraduna

Arestian aipatutako **falta arinak** jantokiko arduradunak Alexiaren bitartez **gertakari** edo **inzidentzien berri emango die gurasoei, tutoreari baita etapako Elkarbizitza arduradunari**, hutsegitea egiten den **egun berean**. Tutoreak “Tutoretza” karpeta **“Intzidentziak”** atalean sartuko ditu. Egoera horiek **jokaera desegokizat hartuko dira** eta sei esparru edo arlokoak izan daitezke Alexiaren bitartez jasoko diren intzidentziak:

1. Hezkuntza elkartearen edozein kiderekiko errespetu falta.
2. Bertako arauak ez errespetatzea
3. Modu errepikakorrean ezarritako gutxienekoa ez jatea
4. Baimenik gabe ikastetxetik ateratzea
5. Materialen zaintza
6. Justifikatu gabeko hutsegitea.

Bi intzidentzia pilatuz gero, tutoreak gurasoei deituko die baita ikaslea ere. Ikasleak “txartel horia” jasoko du eta neurri zuzentzaileak abian jarriko dira (201/2008 dekretuaren 30.artikulua). Neurri zuzentzaileen artean: berarekin berba egitea, gurasoekin, jantokia garbitu etabar.

Hilean hiru intzidentzia edo gehiago pilatuz gero (LHn zein DBH-BATXn) bizikidetzaren aurkako jokabidetzat hartuko da ikaslearen jokabidea (201/2008 dekretuaren 31.artikulua). Horren aurrean hurrengo prozedurari jarraituko zaio:

1. DBH – BATXILERGOKO ikaslea izatekotan: **bi egun jantoki zerbitzua erabili barik** -astearte eta ostegunak-. (201/2008 dekretuaren 35.f. artikulua)
2. LHn ez da gomendagarria neurri zuzentzaile hau hartzea.

Egoera errepikatzekotan, eta betiere egoera bakoitzari erreparatuz, Elkarbizitza batzordeak 201/2008 dekretuaren 35.i. art. hartuko du kontuan hurrengo neurri zuzentzaileak hartu baino lehen. Horrez gain, ezinbestekoa da 41.artikulan zein dekretuaren III.atalean ezartzen dena kontuan hartzea.

Aurreko neurria (jantoki zerbitzua barik uztea ikaslea) bi aldiz ezarri bada:

Hiruhilabetearen barruan jarrera bera errepikatzen bada, neurria berriro ezarriko da, baina hirugarren aldiz epe laburrean gertatuko balitz, **BIZIKIDETZARI KALTE LARRIA ERAGITEN DIOTEN JOKABIDE** bezala hartuko litzateke (201/2008 dekretuaren 32.art.) eta horren arabera, Elkarbizitza Batzordeak hartu beharreko neurriak erabakiko ditu (201/2008 dekretuaren 36.art.)

**Jokabide arazo larriak dituzten ikasleekin neurri zuzentzaile eta prozedura berezia har daiteke ikasleen beharren arabera, betiere, Dekretuak zehazten duenaren arabera (201/2008 dekretuaren 41. artikulua eta III.ATALA).*

Aurrez esandakoaren kaltetan izan gabe, eta egoeraren larritasunaren arabera **jarrera desegokiak, elkarbizitzaren aurkakoak eta elkarbizitza larriki kaltetzen dutenak DBHko araudi orokor honetan jasota dauden prozeduraren arabera bideratuko dira**

Jantokiko erabileran: **Ikastetxeko irakasle, monitore eta langile guztiek**, beren hezitzaile zeregina beteaz, gelan edo ikastetxeko beste instalakuntzetan egindako **jokabide**

ezegokiak zuzendu ditzakete eta zuzendu behar dituzte, zuzenean beren ardurapean daudenean, eta hitzez errieta egingo dio, unean bertan, elkarbizitzaren jokabide ezegokiren batean aurki lezakeen edozein ikasleri.

Aurrez esandakoaren kaltetan izan gabe, **zuzendariari**, edo arautegiaren arabera bere ordeztu dagoenari **dagokio elkarbizitzaren aurkako edo elkarbizitza hori larriki kaltetzen** duen jokabideren baten aurkako **neurri zuzentzaileak aplikatzeko eskumena**.

7. ESKOLAZ KANPOKO EKINTZETAKO ELKARBIZITZA ARAUAK

Atal honek ikastetxeko bizitzan eta kudeaketan esparru propioa duenez, **araudi berezia eta propio egokituta dauka**, hori dela eta, araudi honekin batera **eranskinetan jasota agertzen da**.

8. FUNTZIONAMENDU OROKORRERAKO ERANSKINAK.

8.1. ORDENAGAILUAK ERABILTZeko JARRAIPIDEAK

- **Irakasleak esango du noiz ordenagailuak piztu**, beraz, ezin dituzte gailuak euren kabuz martxan jarri.
- **Irakasleak esandakoari jarraitu beharko diote ikasleek**, berak adieraziko baitie zein aplikaziotan sartu eta zeintzuk diren saio bakoitzaren zereginak. Beraz, ikasleak agindutako aplikazioetan baino ezingo dira sartu. Beste programa edo aplikazioren baten premia izango balute (deskargak egiteko, dokumentuak berreskuratzeko,...) irakasleari baimena eskatu beharko liokete.
- **Ekipoetan ezingo dituzte**, euren kabuz, ezelango **konfigurazio aldaketarik egin** (pantailako irudia, konfigurazioa, programak, eta abar). Salbuespen moduan, edozein inzidentzia izango balute edo aldaketaren bar sartzeko beharra balute, beti adierazi beharko liokete irakasle arduradunari, berau zerbitzu teknikoarekin harremanetan jar dadin.
- Gailuetan matxura edo arazoaren bat gertatuko balitz, ezarritako prozedurari jarraituko diote ikasleek. Geletan dagoen inzidentzia orria bete behar dute eta ordenagailua harreragunera jeitsi, bertan agiriaren kopia jasoko dute eta zikloko koordinatzailearengana jo behar dute, agiria entregatu eta ordezkoa emango zaie.
- Ikasleek eta haien familiak argi izan behar dute ekipoak, dena ordaindu arte, Ikastetxearenak direla; beraz, busti, apurtu edo arduragabeko erabileraren ondorioz, zerbait gertatzen bazaie ikastetxeak neurriak hartuko dituela.
- **Lapurretak** edo **desagerpenak** izanez gero, Ertzaintzan ipinitako salaketaren agiria ikastetxean aurkezteko beharra izango dute.
- Erabiltzeleek izango dute ordenagailuan dauzkaten artxiboak eta informazioa gordetzeko erantzunkizuna, behar izanez gero dagozkien kopiak eginez. Ekipoan fromatetu beharra balego, zerbitzu teknikoak ez du ardura hori bere gain hartuko.

8.2. ORDENGAILUAK ERABILTZEKO UNEAK ETA ESPAZIOAK

Portatilak lan tresnak dira eta Batxilergoko eremutik kanpo **ez dira erabiliko**.

Ikasleren bat Batxilergoko eremutik kanpo ordenagiluarekin arituko balitz, ordenagailua hartu eta koordinatzailearen bulegoan utziko genuke ikaslearen izena post-it batean idatzita. Errekrea amaitzen denean, ikasleak koordinatzailearen bulegoan jasoko luke eta koordinatzaileak tutoreari horren berri emango dio. Ikasle bera birritan harrapatuz gero, tutoreak gurasoei gertatutakoa jakinaraziko die eta ohartaraziko die berriro harrapatuz gero, arratsaldeko eskolak amaitzen direnean, gurasoak eurak eskolara hurbildu beharko liratekeela ordenagailua hartzen

8.3. SAKELEKOAK ETA BESTELAKO GAILUAK ERABILTZEKO ARAUAK

1. **Ikasleek mugikorra, smartphona edo smarwatch ikastetxera ekartzeko familiaren baimen sinatua tutoreari entregatu beharko diote.**
2. **Aparatuak ikasle bakoitzaren takilleroan itzalita eta gordeta egon beharko dute.**
3. **Ikasleek ezingo dute eskola eremuan eskola ordutegian ezta ordu osagarrietan mugikorra, smartphone ,smarwatcha edo bestelako aparatu digitalik erabili(irakaslearen zuzeneko baimenarekin ez bada).**
4. **Era berean, erabat debekatua dago ikasle, irakasle edota zerbitzuetako pertsonen irudi eta soinuen grabazioa, irakasleren baten zuzeneko baimenarekin ez bada, ikastetxeko edozein gunetan (aldagela, zerbitzu, jantoki edota eraikineko beste edozein gunetan, patioak barne).**

NEURRI ZUZENTZAILEAK:

Kurtsoaren hasieran tutoria saio bat izango da teknologia berrien erabilera egokiaren inguruko hausnarketa burutu eta IKT-en erabilera arduratsuko jarrerak sustatu ahal izateko (Sakelekoak ere tartean).

Hezitzaile batek ikaslea baimenik gabe sakeleko zein beste tresna elektroniko bat erabiltzen ari dela erreparatuko balu:

- **Lehenengo aldiz bada, telefonoa kendu egingo dio eta tutorearen esku utziko du. Egun horretako azken ikastordua amaitzerakoan bueltatuko dio. Tutoreak gertatutakoaren berri familiari helearaziko dio.**
- **Bigarren aldiz bada, irakasleak telefonoa kendu egingo dio eta tutorearen esku utziko du. Kasu honetan tutoreak bost egun lektibo gordeko du tresna. Bosgarren egunean itzuliko diolarik azken orduan. Gurasoei jakinaraziko die gertatutakoa.**
- **Hirugarrenez, bada, irakasleak telefonoa kendu egingo dio eta, tutorearen esku utziko du. Azken honek koordinatzaileari utziko dio gailua eta bost egun lektibo gordeko du. Koordinatzaileak familiari deitu eta aurrez aurreko bileran indarrean dagoen araudia aplikatuko litzateke ikastetxeko bizikidetzaren aurkako jokabidetzat hartuz. (31. Artikuluaren barruan, m atala.Eskubide eta betebeharren dekretua,Eusko Jaurlaritza)**
- **-Errepikapena emanaz gero ikasleari telefonoa kendu egingo zaio eta, tutorearen esku utziko du. Azken honek koordinatzaileari utziko dio gailua eta bost egun lektibo gordeko du. Koordinatzaileak familiari deitu eta aurrez aurreko bileran indarrean dagoen araudia aplikatuko litzateke**

ikastetxeko bizikidetzaren aurkako jokabide oso larritzat hartuz. (31. Artikuluaren barruan, m atala.Eskubide eta betebeharren dekretua,Eusko Jaurlaritza)

8.4. TAKILAK ERABILTZeko ARAUAK

- Ikasle bakoitzak bi giltz izango ditu eta bere ardurapean egongo dira.
- 8:15ak baino lehen lehenengo bi orduko materialak hartzea.
- Gogoratu sakeleko telefonoa takiletan gorde behar dela beren erabilera mugatuta dagoen ordu guztietan.
- 10:55ean liburu horiek gorde eta 11:20ak baino lehen goizeko beste arloetako liburuak hartzea. Gauza bera egingo dute 13:10eko atsedenaaldian zein klase tarteko beste denboretan.
- Ordenagailua deskargatuta balego, etxera eraman behar da kargatzeko. Erabiltzaile bakoitzak izan behar du horren ardura.
- Gabonetan, aste santuan eta kurtso amaieran hustuko dira takilak.

Hasieran esan dugun bezala, **Etapako araudi orokor hau 201/2018 ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzko dekretuarekin batera ulertu behar da**, eta beronen aplikazioan edozein zalantza agertuko balitz dekretura joko genuke argibide bila, azken hau baita, gure elkarbizitza planarekin batera, erreferentzia nagusia.

Honekin batera badira **Hezkuntza Sailak ikasleen oinarrizko eskubideak bermatzeko burutu dituen prokokolo eta jarraipideak**, horiek denak **ikastetxean aplikatuko dira egoerak eskatuta edota edo ikasleen babes falta antzemango bagenu**:

- a) *Eskola jazarpen kasuetan ikastetxeetan jarduteko gida (2015)*
- b) *Eskola jazarpen egoeretan jarduteko protokoloa aplikatzeko jarraipideak (2019)*
- c) *Hezkuntza-arloko prebentzio- eta jardun-protokoloa, gerta daitezkeen haurren eta nerabeen babesgabetasun, tratu txar, sexu-jazarpen eta sexuabusu egoerentarako (2016)*
- d) *Ziberbullying kasuetan ikastetxeetan jarduteko protokoloa (2011)*
- e) *Ikastetxeentzako protokoloa, ikasle transexualei edo arautik kanpoko genero-portaera duten ikasleei eta haien familiei laguntzeko. (2016)*

Jarraipide hauek guztiak helburu argia dute: ikastetxea elkarbizitza positiboko gune seguru eta inolako jazarpen-egoerarik gabekoa bihurtzea, eta ikasle guztiei beren garapen personal aske eta osorako laguntza ematea. **Elkarbizitza karpetan daude gordeta, dokumentu honetan agertzen den etapako araudiarekin batera. kin batera.**